Pozuti aterata,
Eta gu lakuak,
Eskubetan aŕtuta,
Iguin bagarik,
Diŕube zelayetan
Izten zabaldurik.

Lioŕtuta daroez
Gero makupera
Eŕukija aztuta
An banatutera;
Lan au egin oi dabe
Eguzki galdatan;
Iña-jole gaxuak
Ixerdi lamatan.

Ezta onenbestegaz
Nekia amat̄uten:
Bedaŕ ain banatuba
Dabe astotuten.
Asto-sapin batian
Isteko samuŕik
Gogoŕa eguana
Ondo bigundurik.

Txaŕantxea deritxon
Oŕazi azkatuban
Ikusten da ostera
Ondo katiguban
Liño agoŕa ba-da,
Yakoz ateraten
Ganak, eruateko
Gero ezpatatuten.
Emen saŕtuten dira
Gure lau baŕijak,
Soñubaz emoteko
Pena lazkaŕijak
Asto-sapin ta mazu
Azpijan juari
Egit̄en diriala
Gustijok kantari.

Tris-traska dirautsagu
Eŕuki bagarik
Izten ezteutsagula
Guk azuŕ osorik,
Izpi txaŕ ta erbatzak
Yakoz ateraten,
Eta largaten deusku
Guroguna egit̄en."

**Itz neuŕtubok liñua ezpatakaz bigunduten diñardubenen abestijak dira eta gure ezpatadantzari-gorularijai euren liño-lanetan diñardubenetan bein baño saŕijago entzuten yakeze.**

# GOGO IT̄UNA

Oste-aŕtian
nagonian,
Ingurutzen yat tamala,
Mitxeletak
Argijari
Inguratzen yaken antzaz.
Neu bakaŕik
Nagonian,
Bijotzian jaŕten yataz.
Kendu eziñak,
Gomutako
Mitxeleta baltzak.

---

Neu-goguan,
Galdu yatan
Mat̄iaren irudijak,
Uŕatu ¡bai!
¡Oi! sakondu,
Bijotz-baŕuko zaurija.
Alan ta be,
¿Nok ziñestu?
Gomuta it̄unen tamala
Da, neuretzat
Gozo, mat̄e,
Atsegin gaŕatz-bakana.

---

Buaz oŕek
Bizkoŕ arin
Ludi onetako alai-bit̄a.
Eurentzako
Ixan dat̄ela
Beko guzuŕ-atsegiña.
Neu bakaŕik,
neure gelan,
Gurago dot egotia,
Neure gelan,
Baŕiztuten
Neure gomuta samiñak.

UTAŔSUS.

---

Agiri danez, egutegijau, irakuŕle irakuŕgai ta edesti-tantatxuz ondo ornituta dago, eta sei txakuŕ nausiren ordez Euzko-Batzoki ta idaztitegirik geyenetan erosi leike.

Bilbao'ko Euzko-Idazkaltza-Buruba'n, Ibañez de Bilbao, 16'gaŕenan, baŕiz, pilotxuba erosten daunari euneko amaŕeko irabazija emongo yako. ¿Zuk, be, irakuŕle, erosiko dozu ezta?

URIBIT̄AŔTE'TAŔ IBON.